

# HARA!

adikzioak, minak eta desirak

**Hara!** taldea (2016ko martxoa, Ondarroa) hirukoia da (Epi, Julen eta Jon Kirru). Ez dira musikari berriak, besteak beste Keike, Xarma... taldeetan jo izan zuten. Hara! taldearen estreinako diskoa 2016ko urrian grabatu du Axular Arizmendik Mutrikuko AME Estudioetan. Masterizazioa Estanis Elorzak egin du Donostiako Doctor Master estudioan. Keu Agirretxek (UEK), "Agian" abestian bukarako gitarra konponketa egin du. Juan Sangrek (Governors) "Hiztegi Mutuak" abestian ahotsa sartu du. Garoa Arizmendik, "Azken Argia Itzaltzean" abestian kantatu du. Aritz Sagarmendik, "Azken Argia Itzaltzean" abestian baxua jo du. Diseinua Andere Etxegarai Zubiaurrek egin du eta argazkiak Josu Trueba Leivak.

Hara! taldearen lehen diskoa (Adikzioak, minak eta desirak), hara nolakoa den: indarra melodiarekin uztartzen denean Hara! dugu. Rock trinkoaren ezaugarria. Rock itxura sakona, askotan zikina, gogorra eta latza. Hara! rockaren itsaso zakarrean jaiotako taldea da, batzuetan hard, besteetan core, grunje eta punk zertzelak, bortitz eta gehienetan melodiaz lepo. Musikaren oinarrietan garratzasuna agertzen du Hara! taldeak kantuetan, eta gero ahotsaren melodiekin zipriztindu ondoren zapore mikatzak desagerrarazten ditu, baina euskarriaren trinkotasuna galdu gabe. Hara! taldearen abestiak gogorretik daukaten melodietan kontrapuntua jarrita bukatzen dira. Gainera batzuetan ere badu pop ukituaren xarma eta aurpegi adeitsua ere erakuts dezake. Musika gihar indartsu eta lodi baina aterpe eta salbazioa pop ukituetan aurkituko dute ere bai. "Ezezaguna" (The Silencers taldeak gustura sinatuko lukeen abestia da) eta "Azken argia itzaltzean" kantuak bare datoz eta beste bost abesti, eta beti, ordea sakon, garratz eta latz. Desirak minaren adikzioa askatu ondorengo proposamena da Hara! gogorra eta indartsua. Batzuetan Berri, Dut, STP, Kuraia. Gehienetan kantuetan bikain dagoen sekulako diskoa.

oharra: Hara! harridurazko interjekzioa da inpresioak eta sentimenduak adierazteko.

## AGIAN

Esan gabeko hitzak, burura eraman gabeko ekintzak... zama astunegiak hain laburra den bizitza honetarako. Zerk beldurtzen zaitu? Bada, horixe! Badakizu zeren bila joan behar duzun. Abestiak Europa iparraldeko teknoa eta rocka uztartzen dituzten taldeen eragina du, Gossip taldearena adibidez. Funk erritmo simple eta primitiboak eta rock energiakoak elkarrekin gurutzatzen dira ahots melodikoarekin.

## OLIBONDOAK

Gaua da. Bakarrik noa. Marrak, hutsuneak, marrak hutsuneak... haizetakoaren ezkerreko aldean, behin eta berriz. Zurekin egon ondoren, goizaldean, etxerako bidean, olibondoek adieraziko didate, hauek ez direla zure oroimenaren kutxa beltz horretan gordetzen dituzun gure bazterrak. Rockaren eremu ilunenetik edaten duen gitarra riff indartsu eta errepikakor batetik abiatzen da abestia. Erdialdean, tempo erdira salto egiten duenean, kantua ireki egiten da eta arnasa hartzen du ahots melodia itsaskor eta akorde irekiak direla eta.

## AZKEN ARGIA ITZALTZEAN

Gogoan dut eguerdi hura, etxera bakarrik itzuli nintzena. Zure hutsunea sentitu nuen asteetan zehar. Eta orain, zu hor zarela jakiteak, hunkitu egiten nau. Betiko lagunak, bizitzaren bidaia eder honetan. Lokalean behin ere jo izan gabe, estudioan ezustean grabatu genuen. Arima dauka. Gitarra elektroakustikoarekin kolpe bakar batez ateratako doinua da.

## ZURRUPATZEN.

Dow Jones, Nasdaq, Ipsa... kasino batean jokoan dauden bizitzak. Kapitalismoa kontraesan erraldoi bat da. Bizitza bera kolokan jartzen duen bizimodua. Denbora hil behar, berak geu hil ez gaitzan. Hasierako gitarra riff-ak rock klasekoa gogorarazten digu baina abestian aurrera joan ahala, Faith No More edo Audioslave bezalako taldeen eragina nabaritu daiteke, erritmo bikoteak zati horietan egiten duten oinarri sendo eta ahots melodiak sartzeko moduagatik.

## EZEZAGUNA

Batzuetan, ustez ezagutzen zenuena, ezezaguna bihurtzen da eta egiazkoak ez ziren ziurtasun eta konfort eremuak hankaz gora geratzen dira. Kantu zahar bat, garai berri baterako. Abesti pop-rockeroa, batek baino gehiagok Sei Urte talde berriztarraren itxura duela dio, kantatzeko moduagatik edo. Etxeko grabazioetan erritmo eta tempo desberdinak izan ditu. Pop kutsua du, gitarra garbi eta ahots melodikoarengatik, baina rockaren nerbioa antzematen da.

## HIZTEGI MUTUAK

Izozkiak ahoan, zerura begira. Suziriak dirudite, baina, ez dira suziriak. Siriako zerua da erretzen ari dena. Sua zeruan, heriotza lurrean. Ez dira suziriak, ziria sartzen digute. Hard-core melodikoak eta hard coreak orohar, eragin handia izan zuen, nerabearoa 90. hamarkadan bizi izan genuenongan. NOFX, Bad Brains, RKL, BAP... eta tankerako bandek, garai bat markatu zuten, ohiko zirkuitu komertzialetatik kanpoko eremu alternatiboetan.

## KITZIKAN

Badakit kalte egiten didazula baina nire ondoan behar zaitut. Egin nazazu zeurea eta amore emango dut. Ez naiz neu. Zeu zara. Ez zara neu, eta ni, zeu naiz. Eremu labainkorregietan ibiltzea gehiegi maite ote dut? Funketik eta rocketik edaten duen abestia da. M-ak talde mitikoaren influentziaren bat nabaritu daiteke beharbada baina baita gerorago sortutako Euskal Herriko hard rock taldeena.

Gorka Ruiz Etxano "Epi": bateria  
Julen de Diego Arrizabalaga: baxua  
Jon Kirru Iparragirre: gitarra eta ahotsak

ritxi aizpuru + hara! (2017ko apirilaren 6an)